

ARAUDIAK

A.02 MATERIALA MAILEGATZEARI BURUZKO ARAUDIA. (AJA. VII. TITULUA. BALIABIDE MATERIALAK)

1. TGLUMEk materiala mailegatzen die (megafonia, aulkiak, danborrak...) une jakin batzuetan material hori erabili nahi duten Tokiko Erakundeei (hala nola kultura-, kirol-, olgeta-erakundeei), haien ohiko eta ezohiko jarduerak indartzeko.

Materiala maileguan hartzeagatik ez da inolako tasa osagarririk ordaindu beharko, Lezoko interes kulturaletarako onuragarria baita.

2. Materiala maileguan hartzeko, baldintza hauek bete beharko dira: TGLUMEko materiala eskatzeko eskabidea Lezoko Udaleko bulegoetan edo TGLUMEko bulegoan aurkeztuko da. Bertan, honakoak gutxienez adieraziko dira:

2.1- Arduraduna, arazoak, kalteak, etab., egonez gero.

2.2- Arduradunaren izen abizenak, Nortasun Agiria, helbidea, telefonoa, eta ordezkatzeko duen Erakundea.

2.3- Jardueraren azalpen laburra eta eskatutako materialaren erabilera.

2.4- Araudia ezagutzen duela eta onartzen duela dioen zinpeko aitoren sinatua.

2.5- Gehienez ere 7 eguneko epean eskabideari erantzungo zaio, eta erantzunik jasotzen ez bada, onartu ez dela ulertuko da.

Harik eta berriazko baimenik egon arte, ezin izango da eskatutako materiala erabili.

3. Baimena berretsi ondoren, Eskolako materialaren erabiltzaileek ardura hauek hartuko dituzte:

3.1- Materiala jaso eta entregatu finkatutako epeetan.

3.2 Ordenari eutsi.

3.3 Erabilitako materialean edozein akats ikusiz gero, TGLUMEko bulegoan jakinarazi.

3.4 Materiala behar bezala ez erabiltzeagatik sortutako kalteak ordaindu, konpondu edo ordezkatu. Kalterik atzemanaz gero, Eskolak erabakiko du erabilera arruntaren ondorioz edo erabilera desegokiaren ondorioz izan den. Erabilera desegokiaren ondorioz baldin bada, kalteak ordezkatu edo ordaindu beharko dira.

Halaber erabiltzailea erantzule izango da, baldin eta TGLUMEko bulegoari ez badio materialaren akatsen berri eman.

4. Erabilera baimentzen bada, baina, ondoren, eskabidean jasotako parametroren bat aldatzen bada, arduradunak idatziz eskatu beharko du berriro baimena aldaketa horretarako.

AZKEN XEDAPENA

Eskola-kontseiluburuari ahalmena ematen zaio araudi hau aplikatzeko eta garatzeko behar adina arau eman ditzan.

1. [Eranskina. Eskabide-dokumentua.](#)

MATERIALAREN MAILEGU-KONTRATUAREN ESKAERA
20...-20... IKASTURTEA

BILDURIK:

Alde batetik,, "Tomas Garbizu" Lezoko Udal Musika Eskolako Arduradun-Irakaslea eta, bestetik, ESKATZAILE- ARDURADUN hau:

Izen-Abizenak:

Erakundea:

Helbidea:

Telefonoa:

Arduradun tekniko*:

.....

MATERIALA:

1..... 2.....

3.....

4.....5.....6.....

....

MATERIALA erabiltzeko kontratu hau egin eta sinatu dute

ADIERAZI DUTE: _____

JARDUERA: _____ **EGUNA** _____

ENTREGATZE-DATA _____ **JASOTZE-DATA** _____

KLAUSULAK

1.- Erakunde eskatzaileak behar bezala erabili eta zainduko du materiala.

2.- Adierazitako jasotze-datan itzuli beharko du materiala.

3.- Erakunde eskatzaileak konpromisoa hartzen du materiala itzultzeko, laga zitzaion bezala –funtzionamendu eta kontserbazio baldintza beretan–. Erabilitako materialean aurkitutako edozein gorabeheraren berri emango du TGLUMEko bulegoan. Hala ez bada, erabiltzailea izango da akatsaren erantzule.

4.- Erabilera okerrarengatik, dauden materialetan sortutako kalteak, ordeztu, berrezarri edo ordaindu egingo ditu.

5.- Erakunde eskatzaileak ordezkari bat* izendatu beharko du, ekipo teknikoaren funtzionamendua ondo kontrolatuko dela bermatzeko (megafonia,...)..

6.- Kontratu honen balioa, eskatutako aukerarako izango da.

Alde biek, adierazitakoarekin ados egonik, dokumentu hau izenpetu dute,

Lezon, 20__(e) ko _____ren __(e) an.

ZUZENDARIA.

ERAKUNDEAREN ARDURADUNA